

Getxo >MEETING<

Ekainaren 7ko GetxoMEETINGa

“Lehenago esan balidate!” saioko gako batzuk.

Batzuetan irabazten da, beste batzuetan ikasten da. Horretaz aritu ginen joan den ekainaren 7an, zehazki jakintzak eskuratzeko balio dizkiguten anekdotak eta bizipenak azaldu genituen. Bertaratutako profesionalekin hitz egin genuena azalduko dugu jarraian:

- Enpresa bat sortu eta hura hazi arazteko prozesuan, egiten hastea egiteari uztea bezain garrantzitsua da: esperientzia maila bat da eta behaketa, tresna bat.
- “Lehenago esan balidate!” esaerari lotutako ikaskuntzek “ez dakizu ez dakizula” esaeraren esanahiarekin zerikusia dute. Norbaitek kontatzen dizu edo zeuk bizi behar duzu.
- Akats txikiak enpresa ikusteko dugun modua aldatzen duten aurkikuntza handiak dira. Askok gu eraldatzen gaituzte eta gure enpresak eboluzionarazten laguntzen digute.

Esperientzien nahasketa bat. Hona hemen aurrera irten zen ikaskuntza nagusietako batzuk (agian balioko dizute edo ez, baina benetako egitateetan oinarritutakoak dira):

- Negozio bat sortuko baduzu, Getxolanera joan. Parte-hartzaileetako bati gertatu zitzaiona zuk bizi behar izan ez dezazun, bere negozio berrian eragiten zuten zerga-motak eta epeak ez ezagutzeagatik oharkabean ordaindu behar izan baitzuen atxikipena.
- Ez ezazu inoiz lan egin dohainik. Gauza bat da lanbide bereko edo antzekoen lankideen artean mesedeak egitea, eta gauza desberdina da mesedeak eskatzea 0 euroren truke. Ordaintzen ez dena ez da baloratzen.
- Norbaitek berarentzat lana dohainik egitea eskaintzen badizu, neur itzazu ondorioak. Egiaren unean, ezin izango duzu ezer exijitu. Eperik ez, kalitaterik ez. Benetan merezi al du?
- Negozio bat badaukazu beste bazkide batzuekin, bakoitzak daukan eginbidea zehaztu beharra dago taldea oso txikia izan arren, eta argi izan behar da krisialdian edo desadostasunik egonez gero nork eta nola gidatuko duen proiektua. Akordioak ahalik eta esplizituenak izan behar dira, okerrik ez goteko.

Hurrengo saioan, aholkuak trukatzeko jarraituko dugu, baina oraingo honetan elkarrizketetan eta salmenta-prozesuan jarriko dugu arreta. Bazatuz?

GetxoMEETING hamabost egunean behin egiten dugun batzarra da, negozio propioa duten pertsonekin eta udalerriko enpresekin. Bi ostegunetik behin, 14:30etik 16:30era, Getxolan Getxo Elkartegian (Ogoño kalea, 1, 48930, Areeta – Getxo) egiten den aldizkako bilera da. Dohainik da. Pintxoak eta kafea/tea eskaintzen dira. Hori bai, plaza gordetzea beharrezkoa da, getxopro@getxo.eus helbidera idatziz edo 94 466 01 40 telefono-zenbakira deituz. Izena eman ezazu eta errepikatuko duzu.